

«Denbora bere lekura» eramateko saiakera egin du Gerardo Markuletak Erein argitaletxearekin kaleratu berri duen poesia liburuan. Denboraren joanak ze min eragiten duen aztertutako, haurtzarotik abiatuta oroimenetik erreskatatutako argazkiak baliatuz.

Denbora, bere pisu doian


Arlane KAMIO | DONOSTIA

Berrogeita hamar urte betetzen zituenean zeukan pentsatua Gerardo Markuletak (Oñati, 1963) "Denbora bere lekura" poesia liburua kaleratzea. Apur bat atzeratu da argitalpena; 52 urte betetzekotan dela ikusi du argia bere lanik berrienak. «Sinbolikoki badakigu (50 urterekin) atzean denbora gehiago uzten dugula aurrean daukaguna baino», adierazi zuen atzo, Donostian, alearen aurkezpenean.

Itzulpengintzaren eta poesiararen artean aritu da lanean Markuleta bere ibilbide literarioan. Kasik hamar urte pasatu dira sormen propioko lan bat aurkeztu zuenetik. «Aurkezpen ugari egin ditut azken urteetan, baina itzulpenak denak. Itzulzaileak medium lanak baino ez ditu egiten. Kasu honetan, ordea, norberaren lana denean, eta are gehiago poesia baldin bada, gauzak aldatu egiten dira. Strip-tease bat egitea bezalakoa da», esan zuen bromatan.

Denbora

Denbora jarri du bere laneko ardatzean Gerardo Markuletak. Denboraren igaro etengabea, atzera begiratzea, haurtzarora. Joandako denborak ze min eragiten duen azaldu du bere lanean. «Iraganak pisu gehiegi hartzen du gure bizitzan», aipatu zuen egileak. Ez da, ordea, pasa-



Gerardo Markuletak Donostiako Parte Zaharrean aurkeztu zuen atzo lan berria. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

takoa ahazteaz ari; «nahi nuke oroitutako horri bere pisu doa ematea. Bizitakoa ez dadila traba izan eta denbora bakoitzak bere pisua izan dezala», gaineratu zuen. Nostalgikoa baino gehiago, sendagarria da idazle onatiarraren lanaren helburuetako bat.

Berrogeita hamar poema orotara, lau ataletan banatuak. Hamar urteko epean idatzitako bil-

duma, nahiz eta sortutako asko kanpoan geratu diren.

Oñatin bizitako haurtzaro eta nerabezaroan du hastapena "Denbora bere lekura" liburua. «Irratiarekin bizitako gau magikoak, gurasoei eskainitako poemak», azaldu zuen.

"Ezkutuko tiradera" izenburua jarri dio bigarren atalari, iragan kolektiboari eskainitakoa; «euskaldun guztiak ezarri digu-

ten zama». Hirugarrenean labor gelditzearen aldeko hautua egin du, «erabateko doitasunez» aukeratutako hitzez osatutako lanekin.

Azkena, amodiozko poemekin antz gehiena izan zezaketen testuekin osatu du. Bere buruarekin ere harritu dela onartu zuen; «amodiozko antipoea ugari idatzita, orain ezkon poemak ere idatzi ditut».

Azken bi saioei begira jarri da Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasea

GARA | DONOSTIA

Pasa den larunbatean Zumaiaren eta Oñatin eta igandearen Zizurkil eta Usurbilen jokaturako saioen ondoren, azken bi hitzorduei begira dago gogoenkako Gipuzkoa Bertsotan, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea. Azken bi saio horiek Ataunen jokatuko dira, datorren larunbatean.

Zumaiako goizeko saioan Nahikari Gabilondorren izan zen puntuazioziko altuena. Arratsaldekoan, berriz, Haritz Casabalek egin zuen saiorik onena. Egun berean beste bi saio jokatuko ziren Oñatin. Goizean, Egoitz Eizagirre orotarraren izan zen lehenengo postua eta arratsaldekoan, aldiz, Gemma Urteagaren izan.

Igandearen beste bi saio izan zituen Gipuzkoa Bertsotanek. Zizurkilaren Ane Labakak eskuratu zuen lehenengo postua goizeko saioan eta, arratsaldekoan, Jon Maiak lortu zuen garaipena. Iragan asteburuko azken hitzordua Usurbilen izan zen eta goizeko saioan Ibai Esoainek lortu zuen puntuazioziko onena; arratsaldekoan Manex Mujika gailendu zen.

Las calles de Iruñea muestran su lado más artístico con El Barrio de los Artistas

GARA | IRUÑEA

El Barrio de los Artistas es una organización sin ánimo de lucro gestionada por personas que comparten la ilusión de llenar las estrechas calles de Iruñea de arte. Un arte sin estereotipos, ni clichés, ni prejuicios, ni requisitos, pero con mucha calidad y variedad. Este año habrá un intercambiador de poesía, pintura con frutas y hortalizas, desfile de moda, acceso a talleres de creadores, zapatos intervenidos, teatro, recitales a viva voz o

acrobacias en barra vertical. Casi un total de 130 acciones.

La duración de este festival es una de las novedades más destacadas de este año. Tras reunirse con participantes y artistas de otras ediciones, se decidió ampliar los días de El Barrio de los Artistas, pasando de durar un día a prolongarse durante toda la semana, del 1 al 7 de junio.

Otro punto fuerte serán la apertura de los talleres de creación artística de la Parte Vieja de Iruñea. Será el jueves cuando se abran estos talleres para poder

ver con el creador su labor desde el punto más cercano, su taller.

Asimismo, se ha inaugurado una exposición permanente en el Palacio Condostable. En el zaguán se podrá hacer un recorrido por los siete años de historia de este festival. En el patio del palacio, por su parte, se encuentra la muestra "Siete/Zazpi", que cuenta con la participación de siete artistas que han acompañado a esta iniciativa durante sus siete años de historia y también en la presente edición.

76
Donostiako Musika
Hamabostaldia
Quincena Musical
de San Sebastián

Abuztua 1-30 Agosto
Donostia / San Sebastián

Sarreraren salmenta / Venta de entradas
Ekainaren 5etik aurrera / Desde el 5 de junio
Goizeko 11:30etan hasita / A partir de las 11:30

www.quincenamusal.eus

Kursaleko Ielhatilla Astelena-Ostirala: 11:30-13:30 Osteguna-Ostirala- Larunbata: 17:00-20:00	Victoris Eugeniako Ielhatilla 11:30-13:30 / 17:00-20:00	Biarritz Tourisme Sólo entradas para Auditorio Kursaal y Teatro Victoria Eugenia (00 33) 559 223 700
---	--	--

943 00 31 70 www.quincenamusal.eus